

## HITZAURREA

Euskal Herriko Unibertsitateko Zuzenbide Zibil Saileko Zuzendari legez, neuri dagokit lan honen hitzaurrea egiteko ohorea eta ardura. Lehenengo eta behin, Donostiako Zuzenbide-Fakultatean, Zuzenbide zibilean lanean diharduen talde elebidunak itzulpen honetarako eginiko ahalegin goraiagarria azpimarratu nahi nuke.

Horregatik, bihoaz lehen hitzak SANTIAGO GOÑI ZABALA eta ITZIAR ALKORTA IDIAKEZ irakasleen zein MIKEL KARRERA EGIALDE Ikerkuntzarako Bekadunaren seriotasun intelektualaren omenez; hauek izan bait dira, lehenengoaren koordinaziopean, eta etenik gabe, gerorako uzterik ez dagoen garrantzizko atazari heldu diotenak: Zuzenbide zibila geure hizkuntzan irakasteari, alegia.

Zer esanik ez, itzuli beharreko Eskuliburuaren aukeraketa ez da itsu-mustuan egin. Aitzitik, hautapenean burutsu jokatu dela begibistakoa da Zibilisten Maisu izandako LACRUZ BERDEJO irakaslea ezagutzeko parada izan duen edonorentzat. Tamalgarria da egitasmo besterik ez zenean ilusioz mintzatu gineneko argitalpen hau haren maisugo eta adiskidetasunaren hilosteko omenaldi bihurtu izana.

Lan honen balio anitzetatik bat aukeratu beharko banu, ez nuke dudarik egingo, ONDASUN-ZUZENBIDE ZIBILAREN HASTAPENAK, *non multa, sed multum* maximari jarraiki eraikitako jakitate-bilduma diren heinean, irakaskuntzarako premiazko lehen-tresna direla azpimarratzerakoan. Geuretzat arras adierazgarri gertatzen den ezaugarriaz gainera; izan ere, tresna bikainok landu zituena bait da, Dogmatika edo Zuzenbide-zientzia

---

eta geurea edo “forala” denaren idiosinkrasia, bata bestearen onuran, hobekien elkartu zituenetako bat.

Horregatik, esan egin behar dut euskalduntze-eginahal honetan jakinaren gainean auzi foral edo autonomikoen mugertzetatik at ibili izan garela. Ez ordea, hari garrantzi gabeko irizteagatik; zuzentzen dudan Sailak Zuzenbide zibilak Euskal Herrian dituen erronka desberdin biak argiro bereizten dituelako baizik. Batetik, Zuzenbide zibila geure hizkuntzan irakatsi, ulertu eta eraikitzearena; eta, bestetik, balizko Euskal Zuzenbide Zibilaren konstituzio- eta estatutu-mailako aukerak ikertzea, xede jakin hau dugularik: geure botere autonomikoen erabaki politikoari hatsa eta argia ematea.

HASTAPEN hauek euskaratzea da, aipatutako atazaren seriotasuna bermatzen duen erakusgarrietako bat. Aintzat har bedi gainera, euskarazko bertsioa –zeinari ahal dugun neurrian jarraipena emango diogun– ez dela, geurearen kaltetan, Zuzenbide Zibil Amankomun edo espainiarraren euskaratze hutsaren aldeko apostua; baizik eta, zehazkiago esan, amankomun diren elementu dogmatikoak –balizko– euskal Zuzenbide zibilaren onuran erabiltzeko asmo eta gogoaren adierazgarri.

Tamalez, ez dugu bigarren ildo horri ekiteko ezinbestekoa den aurretiazko aukera politikorik. Botere autonomikoek EUSKAL HERRIKO AUTONOMI ESTATUTUko (EHAE-ko) 10.5 art.aren interpretazio “foralista” hutsaren nahiz autonomista “betearen” artean aukera garbirik egiten ez duten bitartean, ikerkuntz eginahal orok ikergai bi txandakatuko ditu: erakunde zibil tradizionalak ikastea –“existitzen diren lekuan” berritu ahal izateko, hain zuzen ere– eta Legebiltzarraren lege-ahalmenak aztertzea –azken honek Komunitate Autonomoaren Zuzenbide zibil propioaren arian ariko egituraketa bait luke xede–, biak ere aukera politiko okerrekoak izan daitezkeen neurrian arnasa txikikoak direlarik.

Txandakatze hau kontutan harturik eta geure botere autonomikoen iharduerari, orain arte bederen, halako asmorik antzematen ez zaionez –arras bestelakoa baizik–, ez zait iruditzen hitzaurre honetan aurretiazko aukera

politiko ezak sor liezazkigukeen ondorioak errepikatzea lekuz kanpo dagoenik.

Autonomi Estatutua indarrean dagoenetik egin direnetan garrantzitsuenak besterik ez aipatzekotan, nahikoa izango da honakoak gogoraraztea: lehenbizi, Eusko Legebiltzarrean sortutako Batzorde Berezia, debatean zein gerora, ahobatez, argitara eman zuen arau soilean –1988ko martxoaren 18koan, hain zuzen ere–, auzia erabaki gabe utzi zuena; eta, bigarrenik, legislatura bakoitzean behin eta berriro birsortuagatik ere, Batzorde haren ekimen eza –guk dakigunaren arabera behintzat–. Aipatzekoak dira, halaber, itzal handiko bizkaitar jurista-taldeak Foru-Aldundiaren babesean egindako lanak; 1991ko apirilaren 16an, Eusko Legebiltzarrera iritsitako Bizkaiko Batzarre Nagusien Lege-proposamenean (“Bizkaiko Foru-Zuzenbide zibilaren premiazko eguneratzea” izendatu duten horretan) hezur-mamitu direnak, hain zuzen.

Aitzitik, neutrotzat jo ezin direnak (azken finean, “foralismoaren” aldeko jarrera inplizitua bait da) Proposamen eguneratzailearen tramitazioaren gorabeherak ditugu; hura hartzen bait zen euskal legegintza zibil uniformea izan litekeenaren hirugarren fasera iristeko pausotzat. Izan ere, Mahaiaren erabakiz eta Arabako Batzarre Nagusiko Buruaren eskariz, gerorako utzi zen Bilduma berritzea, arabarrek “beraiei dagokien atala” eguneratzeko antzeko ekimenik aurkez dezaten arte. Ez dira ilunak, diogun bidenabar, 1991ko maiatzaren 15etik 18rarte Gasteizen ospatutako Euskal Abokatutzaren II. Batzarrak atera zituen ondorioak ere, Gipuzkoako Zuzenbide Zibilari dagokionean behintzat. Hari buruz honakoa esaten bait da bertan: “arreta berezia eta aparteko interesa dute Gipuzkoako Foru-Zuzenbide usuariozkoaren garrantziak eta iraupenak”. Beste hau ere eskatzen da: “Araba eta Bizkaiko Lurralde Historikoetako Foru-Zuzenbideari buruz etorkizunean egingo den bilduman Gipuzkoako Lurralde Historikoaren eskubidea bereziki aintzat har dadila, beren Zuzenbide zibilaren funtsezko eta oinarrizko printzipioak, hala dagokionean, arau bidez garatzeko”. Hargatik dio: “Gipuzkoako Abokatu-Kolegioari azterketa- eta jarraipen-batzorde bat berehalakoan osa dezan proposatzen zaio, egoki derizkien erakunde publiko eta pribatuen laguntzarekin, egungo Gipuz-

koako Foru-Zuzenbide Zibila zenbateraino sustraitu eta onartuta dagoen ikusiz eta, behar izanez gero, bere mugak ezarritz" garapen positiboa egitea komeni ote den azter dezaten.

Beraz, edo oso oker nabil neure analisisian, edo orain arte gertatutakoak zalantza larrian jartzen du Zuzenbide amankomun autonomiko izango litzatekeen Euskal Zuzenbide zibila garatzeko aukera. Adiera horretakoak dira Foru-Zuzenbidea duten Komunitate Autonomoetako beste Legebiltzar guztiak aldarrikatzen hasitako Zuzenbide zibilak (Konstituzioko 149.1.8<sup>a</sup>. art.aren interpretazio zabala abiapuntutzat hartuta, Auzitegi Konstituzionalak deslegitimatzen ez dituen bitartean). Honakoa esan nahi dut: behar bada iraungitzeaz dagoela arau konstituzional horren koloka, hermeneutikoaren epea, eta gure kasuan oraindik eztabaidatu gabe dago euskaldunontzat (baita infantzoi ez diren bizkaitarrentzat, foruaren menpe ez dauden arabarrentzat eta oro har gipuzkoarrentzat ere) badaezpada hoberena Euskal Herriko Komunitate Autonomo osoarentzat Legebiltzarrak aldibereko legeria bat egiteko erabakia hartzea ez ote den (ez dut uniformea esaten, baina bai aldiberekoa). Horrela doktrina bidez sostengagarria eta bidezkoa den Autonomi Estatutuko 10.5. art.aren irakurketa politikoki burutzen da.

Bistakoa da honelako planteamendu-motarik ez egotea eragozpen zientifikoagatik edota zuhurtasun politikoagatik gerta daitekeela. Eragozpen zientifikoaren artean Euskal Herriak eta bere Lurralde Historiko bakoitzak bizi duen aparteko zatiketa juridiko-pribatua kontutan hartu behar da, edo baita, Bizkaiko kasuan izan ezik, ikerketa dogmatiko orokorren eta erakundeei buruzko ikerketa dogmatikoen falta ere. Eta zuhurtasun politikoari buruz ez da ahaztu behar Lurralde Historikoen erakunde propioen eta Euskal Herriko erakunde amankomunen arteko eskuduntz banaketa berezia; gatazka-joera sortzen duena. Beraz, arazo gutxienak sortzen dituen alternatibara, hots, *statu quo ante*-ari eustera, eta, ondorioz, Komunitate Autonomoko Lurralde Historiko bakoitzean mapa juridiko-pribatua iraun eraztera bultzatzen dute eragozpen eta zuhurtasunok.

Beste toki batean orain dela urtebete pasa ideia hauen berri ematean, legegintz eskuduntza horren erabilera egitean azkenak izateko beldurrak ez

gaituela itsutu behar idatzi nuen. Eskuduntza horretaz egiten den erabileraz arduratu behar da, arreta berandutzearen arriskueta ez eta emandako pausoen edo ematear dauden pausoen arriskuan ezarriz, kontu handiz eman beharreko pausoak dira eta.

Berriro diot. Bizkaiko eta Arabako Foru-Aldundiak, Lurralde Historiko horietako Batzarre Nagusien bitartez (nik dakidanez Gipuzkoan ez da ezer mamitu) eta hauek Eusko Legebiltzarraren estaldura formalarekin, Bizkaiko eta Arabako Bildumaren eguneratze bidez, jadanik Foruaren menpe daudenentzat legepetze hutsera mugatzen badira (bere lurralde-eremuan ukitu txiki batzuk eginez eta/edo “aukera-sistema” bat kontsokratuz) ez da harrizkoa izango jokaera horrek legegintz eskuduntza itzuriez horri buruzko erabaki politikoa berriro ere atzeraraztea. Hona hemen berandutzearen eragozpen politikoa. Baina, diodanez, kezkarriagoa da jokabide honek etorkizunari begira eragin lezakeena.

Eusko Legebiltzarrak horrela jokatzeko badu –aurretik Konstituzio eta Estatutuko manamenduen esanahi bat nahiz bestea politikoki aukeratu gabe–, bistakoa da (izan zitekeen) hausnarketaldi baten ondoren norabideetako batean zehar abiatzen hasiak direla. Beraz, mantentzen den ideia honakoa da: honela egiten bada honela egin behar delako edo honela egiteko inongo oztoporik ez dagoelako da. Euskaldunei, beren Zuzenbide zibila duten beste Komunitate Autonomoei (eta, agian, baita Gobernu zentralari eta Auzitegi Konstituzional berari ere, legeria zibileko arloan eskuduntza autonomikoaren alkantzua behin-betiko finka dezaketen konstituziokontrako helegiteak erabakitzearen dauden honetan), euskal legegilearen erabateko egintzen bidez, oraingoz behintzat bere Zuzenbide zibileko gaitan legegintz eskuduntza duen komunitate historiko honek Konstituzioko 149.1.8<sup>a</sup>. art.ko irakurketa “instituzionala” ez duela gaitzen (eta horretarako asmorik ere ez duela) emango zaie aditzera.

Gauza bat zein bestea nahi izateak, hau da, eskuduntza egikaritzean jarraituko den norabideak, seguraski edozein Lurralde Historikotako (baina, batipat Gipuzkoako) etorkizun juridiko pribatua lotetsi dezake. Argi eta garbi esanda, Bizkaia eta Arabarentzat, konpilatuta duten Zuzenbide zibiletik abiatuz, arazoa aipatu legegintzako Mahai autonomikoaren

erabakiaren interpretaziorik arinena eginda konpon daiteke; hau da, bakoitzaren Batzarre Nagusiek duten “proposamen-ahalmena” bide dela, Eusko Legebiltzarraren eskuduntza bitarteko gisa erabiliz eta 149.1.8<sup>a</sup>. art.aren interpretazio autonomista zuzenean Lurralde bakoitzaren esku utziz, horretarako Konstituzioaren 1. Xedapen Gehigarria eta Estatutuko 10.5. art.aren adierazpenak (Lurralde Historikoen Zuzenbide propioari eta eremu territorialaren finkapenari buruzkoak) euskarri izanik. Aldiz, gipuzkoar Zuzenbide zibilaren etorkizunari buruz argitara emandako aipamen urriek aurrez egin beharreko ikerketa historiko, soziologiko edo bilduma baten premia azaltzen dute. Honek aditzera ematen duena hau da: ez dagoela benetako legegintz eskuduntza eta egikaritzea (bertako Batzarre Nagusiak Legebiltzarrarekin banatuko lukeen legegintz eskuduntza); bizirik sustraiturik dauden eremu geografikoan dirauten “erakunde” zibilen “kontserbatzeko” eta erregulatzeko posibilitatea baizik, edo gauza bera dena, gipuzkoar ohiturak bilatzeko, biltzeko eta berpizteko posibilitatea.

Euskal Herriko Komunitate Autonomoak Foru-zuzenbidea baduenez –hauxe izango litzateke, nere aburuz, hiru Lurralde Historikoei aukera gehien eskaintzen dien ulerpidea eta, dudarik gabe, Zuzenbide zibil propioaren erabilera, lurraldearteko kohesio-instrumentu bezala, erraztuko lukeen bakarra–, bertako Legebiltzarrak, erakunde propioa denez, Zuzenbide zibileko arloan legeak emateko eskuduntza izango du, Konstituzioko 149.1.8<sup>a</sup>. art. bereko azken esaldi ilunean ezarrita datozen mugapenekin, hauek, beti ere euskal kasuan, Konsituzioko lehenengo Xedapen Gehigarriak kentzeko baimena emandako mugapenak baztertuta.

Teorikoki Eusko Legebiltzarrak iraganaldiarekin lotura *absoluturik* gabeko legegintz eskuduntza egikaritzeko luke. Iraganaldi horrek legitimotasuna ematen dio, bai “foru idatzizko eta ohiturazko” Zuzenbidea *kontserbatzeko eta eguneratzeko*, eta bai Komunitate Autonomoko eremu osoan eta Euskal Zuzenbide zibilak barne hartzen dituen gaietan *legeak eman eta eraberritzeko*. Horregatik eta gutxienez (1. Xedapen Gehigarritik atera daitekeenez) 149.1.8<sup>a</sup>. art.ko “beti ere”raino, legegintzako edozein jorkaerak konstituzional eta Estatutuaren arabera oinarritutakoa dirudi, hedatuenak diren bi interpretazioen planteamenduetatik behintzat. Bata maximalista edo autonomista izenekoa da, eta bestea “tartekoa” deitzen zaiona,

azken hau J. Delgado-k landu eta 1.981.eko Zaragozako Kongresuan berronetsi zelarik.

Beste gauza bat da *politikoki* eskuduntza hori egikaritzea komeni den ala ez erabakitzea, edo bera erabiliz Euskal Herriko Zuzenbide pribatuan aniztasunak sartzea. Jarrera hori erabakitzea, ageri denez, ez dagokie legetariei; ordezkari politikoei baizik.

Donostian, 1991ko abenduaren 31n

•

JACINTO GIL RODRIGUEZ  
Zuzenbide Zibileko Katedraduna  
EHUko Zuzenbide Zibil Saileko Zuzendaria